


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %0,4 jaitsi ziren 2017ko lehen hiruhilekoan

Gasolindegirik gabe, %0,1 gehitu prezio finkoetan

Eustaten datuen arabera, 2017ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmentak %0,4 gutxitu ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, prezio finkoetan. Gasolindegia sartu gabe, %0,1 gehitu urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %0,1 jaitsi da, urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Elikagaien salmentak %0,5 gehitu 2017ko lehen hiruhilekoan; Gainerako produktuenak %0,3 gutxitu eta Automobilgintzarako erregaiarenak %2,7, beti ere 2016ko aldi beraren aldean eta prezioen eraginik gabe.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %4,2 jaitsi zen; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %3,0 gehitu.

Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %+6,0; Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %+1,0; Etxeko ekipamenduan espezializatuan % -1,5; Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan % -2,0; dena prezio finkoetan.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. 2017/I

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera		
Euskal AE	-0,4	-0,1
Araba/Álava	-0,8	-1,0
Bizkaia	-0,7	-0,2
Gipuzkoa	0,3	0,6
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera		
Elikagaiak	0,5	0,5
Elikagaietan espezializatuta	-4,2	-1,7
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	3,0	1,7
Beste produktuak	-0,3	0,3
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-2,0	-1,4
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-1,5	0,3
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	1,0	1,4
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	6,0	1,9
Automoziorako erregaia	-2,7	-1,0
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	0,1	0,4
ENPLEGU INDIZEA		
Euskal AE	0,6	0,3

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMI)

Gipuzkoan %+0,3; Bizkaian %-0,7; Araban %-0,8; termino errealean, urte artean, salmenta osoetan. Aurreko hiruhilekoaren aldean, Araban %-1,0; Bizkaian %-0,2; Gipuzkoan %+0,6.

Euskal AE osoan, 2016ko laugarren hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean okupatuen kopurua %0,3 gehitu 2017ko lehen hiruhilekoan; %0,6 aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen (BMI) gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen (BMI) gaineko datu-bankua